

## **Helburuak**

Ikasgaiaren helburu nagusia enpresa mailan langileen ordezkari-tza kolektiboaren oinarritako ezaugarriak ezagutzeta da, Hego Euskal Herrian indarrean dugun espainiar Estatuko Langileen Estatutuak ezartzen duen eredu-a, alegia.

## **Abileziak**

Ikasgaiaren bitartez, irakurleak aukera edukiko du ulertu eta ezagutzeko funtzio bakar bat gauzatzeko, langileen ordezkari-tza kolektiboa enpresako esparruan, bide desberdinak daudela, bakoitza bere zergati eta ezaugarriekin: ordezkari-tza bateratua, sindikala, asanblada, lan-arriskuen ingurukoa, eta funtzio publikokoa.

## **Aurre baldintzak**

Saiatu gara ikasgaia modu ulerterrezean aurkezten. Hori dela eta, nahiz eta lan-harremanetako ikasketak edukitzea oso lagungarria izango litzatekeen, uste dugu ez dagoela inolako ikasketa eduki beharrik aurrebaldintza gisa. Baldintza nagusi bakarra ikasteko grina da.

## **Azalpena**

Ikasgai-aztertzen dena bi aldagai gurutzatzearen ondorioa da: langileen ordezkari-tza kolektiboa eta enpresaren esparrua. Modu laburrean, langileen ordezkari-tza kolektiboko adierazpen desberdinak aztertu ditugu, bakoitzaren ezaugarri nagusiak azalduz, betiere Hego Euskal Herrian indarrean dugun espainiar Estatuko zuzenbidearen arabera. Konplexutasun juridiko gehien duten bi motetan sakondu dugu gehien: ordezkari-tza bateratua (enpresako langile guztien ordezkari gisa), eta ordezkari-tza sindikala (enpresan sindikatu bakoitzera afiliaturiko langileen ordezkari gisa).

## **Gai-zerrenda**

- 1.- Enpresa eta Lan-Zuzenbidea.
- 2.- Langileen parte hartzea enpresaren kudeaketan.
- 3.- Langileen ordezkari-tza enpresan: ordezkari-tza bateratua eta ordezkari-tza sindikala.
- 4.- Ordezkari-tza bateratua: langileen delegatua eta enpresa-batzordea.
  - 4.1. Organo bateratuak.
  - 4.2. Hauteskundeak.
    - 4.2.1. Hautesleak eta hautagaiak.
    - 4.2.2. Hauteskunde-azustapena.
    - 4.2.3. Hauteskunde-mahaiak.

4.2.4. Hauteskunde-sistema.

4.2.5. Bozketa eta bere emaitza.

4.2.6. Emaitza eta sindikatuen ordezkariatasunaren zehaztapena.

4.2.7. Erreklamazioak.

4.3. Funtzioak.

4.3.1. Sarrera.

4.3.2. Funtzioak.

4.3.2.1 Informazioa: informazio pasiborako eskubidea.

4.3.2.2 Kontsulta: informazio aktiborako eskubidea.

4.3.2.3 Legedia betetzearen kontrola.

4.3.2.4 Negoziazio kolektiboa.

4.3.2.5 Besterik.

4.4. Bermeak.

4.4.1 Babes neurriak.

4.4.2 Sustapen neurriak.

5.- Ordezkaritza sindikala: atal sindikala eta delegatu sindikala.

5.1 Afiliatutako langileen eskubideak.

5.2 Atal sindikala.

5.3 Delegatu sindikala.

6.- Laneko arriskuak aurrebabesteko ordezkariatza berezia: prebentzioko delegatuak eta segurtasun eta osasuneko batzordea.

7.- Langileen ordezkariatza funtzio publikoan: langileen delegatuak eta langileen juntak.

8.- Biltzeko eskubidea enpresan: langileen asanblada.

## **Metodologia**

Ikasgaiaren irakurketaren jarduera osagarri gisa, oso komenigarri deritzogu bertan azaltzen diren iturri juridikoak zuzenean irakurtzea, eta, sakondu nahi izanez gero, bibliografian aipatzen ditugun iturrietatik edatea.